

Regina Urrutia Zelaia Madalenako bietia

Galtzeko bidian dagozen ofizio eta ohituren testigutzaia jasoteko intentziñuarekin eta Madalenako jaixak be gaiñian diranez, Santxolopetegi aldera fan gara Maalako Regina Urrutiarekin alkarrizketa hau egittera. Madalenako ermittan urte askuan bietia izandako Reginak eginkizun honen eta bestelako kontuen barri emun dosku.



San Frantziskoren kanpanillatik edateko ur bedeinkatua sankristixa onduan daguen iturri honetan egoten zan.

- Jatorriz zu Murgixako Elorrixa baserrikua zara eta zure gizona zana, Migel Ormazabal, Balantzategikua. Zer dala eta etorri ziñain Madalenako ermittiari erantsitta daguen etxe honetara?

Aurretik hemen eguen bietia erre egin zan eta eliziari kargu egingo otzan batenbaten biharra eguen eta, nola nere gizona auzokua zan, etxe honen jabiarri, Antueneko Kasimirori, eskatu otzan eta holaxe hona ezkondu giñan; aurten 50 urte izango dira abuztuan. Gero, hiru urtian aurreko bietiaren alarguna gurekin bizi izan zan, hil zan arte. Orduan nere gizona geratu zan sankristau.

- Zeintzuk ziran bietiaren lanak edo eginbiharrekuak?

Eginbiharrekuak? Ba, egunero kanpaia jotia, eguerdixan eta illun-

tabarran, eta hil-kanpaia be bai auzoko iñor hiltten zanian. Dozena erdi bat urte edo, izango da egunero kanpai jotiarri jare gotzanetik; orain bakarrik mezetarako joten da eta auzoko norbait hiltten danian.

- Elizia garbiketia be zure kargu eguen?

Bai, elizia txukun eukittia eta erropak garbittu eta plantxaittia

“
Ermittak zainketan dauen bieta-rik ezta geraketan Oñatin; orain danian auzokuak arduraketan dira txandaka.

nere kargu eguen. Astero astero emun bihar izaten xakon pasadaxua eliziari; erropa haundixak, barriz, etziran astero garbittu bihar, urtian behin edo hola, Madalenetarako edo Gabonetarako.

- Lan horreik egittiagatik zerbait kobraiten zan?


Bueno, eliziari kargu egittiagatik etxia bastante merke geukan, baiña bestela sueldua huskerixa bat zan.

- Noiz arte euki dozu eliziaren kargua?

Orain dala bost urte edo, kalera bizittera fan giñanian jare notzan. Orduan hartu eben auzuak, sei hillabetian bi baserrik eta hurrenguan beste bik egitten daue. Baiña gero nere gizona gaixotu egin zan eta medikuak esan oskun ha baiño paraje hobia dala hau, eta halaxe etorri giñan atzera be hona. Orain

JON
ARGAZKIGINTZA

Kale Barria, 28 behea
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI



KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAINKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis.
Tfnoa: 77 09 92
ARRASATE

San Lorenzo, 39
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI



nik eukitten dot elizako giltzia iñor datorrenerako.

- Madalenak hil honen 22xan dira, baiña beste bi egun haundi be zelebraitten dira ezta?

Bai, Karmengo eguna hil honen hamaseixan eta San Frantzisko eguna oktubrian. Baiña orain ezta-go lehenagoko konturik. Karmengo Amaren kapillia Izagarena zan eta aurreko egunian hara fan bihar izaten neben lorakana eta mantelakana; han hamarretakua emuten nosta-in eta gero euren mantel eta lorakin etorten nintzan autobusian etxera. Eurak, egunian bertan etorri, kapillia jantzi eta mezia eukitten ebein, eta gero gurian arnozaitten ebein. San Frantzisko egunerako be igual, baiña Antuenekuekin, eurona zan ta San Frantziskoren kapillia. Orduan bakarrik mantelak eta abadiaren jantzixak ekarten nituan plazan eukain etxetik, baiña lorarik ez, San Frantziskori etxakon lorarik tokaitten eta. Egun horreitan abadia be eurak ekarten ebein agustiñotatik edo; bestela parroki-xakuak etorten ziran.

- Eta Madalena egunerako zein ñek jazten eben elizia?

Auzuak; neskatillak etxerik etxe ibiltten ziran lorak batzen eta Etxeberriko Maria Luisak koroia ippintten otzan Madalenari. Orain Karmen eta San Frantzisko egunetan eta bodak edo holakuak dagozennian be auzua ibiltten da.

- Auzuan Santxolopetegiko baserrixak bakarrik sartzen dira?

Ez, errekiak beste aldera gerketan dan Garibai auzokuak be honako jokeria dakoi, zapatu dantetan mezetara etorten dira, juntan badagoz batzuk eta auzuan pagau be egingo daue. Urtian behin egitten da juntia, San Juanetik hurrengo domekan eta San Pedrotik



Madalenako ermita aurrekaldian San Frantziskok sartutako artia, tradiziñuak dixuenez; gaur egun igartuta ei dago. (Argazkixa: Pedro Luis, 1982).

aurrekuan, karguak aldakateko eta fiestetarako eta, tokaitten dan eskotia pagaitteko.

- Borjako San Frantzisko hemen bizi izan zan 1551etik 1553ra, ezta?

Bai, halaxe da, bai. Sankristixa gaiñian dago oraitteko eta elizkizunak jarraiketako ebalten eben kapillia, baiña bera bizi orain gu bizi garien lekuan bizi ei zan. Gurian gizonak esaten eben gu ezkonketako gertatutako kuarto baten San Frantziskok itxittako su harrixa eta ur bedeinkatu ontzixa topau zittuala

eta beste habitaziño bat be beria ei zan.

- Elizaurrian dagueen arbolia, artia, eta itturrixa be santuaren garaikuak ei dira...

Bai, artia San Frantziskok sartutakua dala esaten daue eta beheratxuago dagueen ur-metal itturrixa be bera garaikua da. Elizako ate onduan dagueen itturrixa bi-hiru urte izango dira ipiñi ebeilla.

- Sankristixan gordeten dan kanpanilliak ze historixa dako?

San Frantziskok elizkizunetarako erabiltten ei eben eta bertatik ur bedeinkatua edatiak berbetan hasteko ume txikiñairi edo atrasautxo dabizeñairi lagunketan doste. Jente asko etorten da horretara, txikixak eta haundixak ikustia be tokau izan xat neri. San Frantziskoren gelia ikustera be jente asko etorten da. Loiolara datozein jesuitak be etorri izan dira, normalian autobusian; jarten dira illadan eta dana ikusten daue bueltan bueltan.

Jente asko etorten da San Frantziskon kanpantxillatik ur bedeinkatua edatera.

TXINTXURRETA ELEKTRETXEA

**Elektra instalazioak
eta iluminazioa**

Kale Barria, 5. Tfnoa: 78 01 54 / 78 11 74 OÑATI

Pintxo bereziak • Kafeak

IZARRAITZ taberna

Giro ezin hobea

Tfnoak: 78 22 47 • 71 61 39 (Etxekoa) OÑATI